

FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko elkartetan aipatu dugun moduan, bezereokin harreman ahalik eta egonkorrenak lortzeko eta diru sarrerak lortzeko gure negozio-ereduan hainbat funtsezko jarduerak egingo ditugu.

Enpresa sektore desberdinetan banatuko dugu eta beraz, langile bakoitzari zeregin bat egokituko zaio. Guztira sei sektore egongo dira eta lau langile dena gidatuz:

- **Produkzioa:** Erositako bizikletak bertan eraldatuko dira eta gure piezak (eguzki panelak, bateria, etab) ezarriko ditugu. Eginzkizun hauek betetzeko guk erositako makineria eta tresneriarekin lan egingo da.
- **Bitartekaria:** Aliantza dugun enpresarekin harremanetan jarriko da, akordioak egiteko, dena ondo atertzen dela ziurtatzen eta erositako bizikletak ondo ailegatzen direla egiaztatuko du.
- **Giza - baliabideak:** Enpresan lan egingo duten langileak elkarriketatu, kontratatu eta haien ongizatea bermatu.
- **Marketing:** Produktua saltzeko edo promozionatzeko egingo da, horretarako marketing-estrategiak erabiliko dira, hau da, produktua, prezioa, banaketa eta promozioa. Hemen merkatuaren azterketaz, publizitateaz, saltzeko erabiliko dugun webguneaz... arduratuko da.
- **Administrazioa:** Enpresaren administrazioaz arduratuko da, bertako finantzak, salmentak, enpresaren jarduera eta agenda kontrola eramango du. Hortaz aparte, sailen arteko kordinazioa erraztuko du.
- **Konponketa:** Enpresan erosi diren bizikletak edo beste leku batzuetan erosi direnak arazo bat izatekotan enpresako lokalean konponduko dira. Gainera, bizikleta gure enpresan erosi bada garantiarekin duina izango da.